

DOMINIŠTIKU

¡A zer mutilla, edozein sagardo edo ardotegitan bost errialen jan-eranak sabeleratzeko!

Ez dakit nondik edo nola jarri ziyoten izen goitiya; bañan dakitana da kai guziyan *Dominištiku* deitzen diyotela.

Kai aldi ura ez alda leku charra izen goitiyak ipintzeko. Ez det gizon bat esagutu baztar artan, bere egiyetako izenez deitzen diyotenik.

Ez dute ez, Aita Santuben baimen biarrik, izen berriyak somatzeko.

Galde dezatela kayian, zein dan Joše Inašio Amuchategi, ia inork esagutzen ote duben..... ¡ez ta bere amak ere!

Bañan galdetzen bada *Dominištiku-tzaz*, aguro esango dute: arrantzale gazte, baldar, medar, moko-luše, buru makur, ezker eskui dinbili danbala ibiltzen dan bat dala.

Eta alašen da. Itsasora-ko jayua nonbait, legorrian dabillenan, ontzi gañian balego bezela balantzaka ibiltzen da; eta jendiak ikaritzen balu bezela, baztarretara zurru-murru begiratubaz, šegara biziyian juaten da sagardo edo ardotegiyan bere buruba sartu arte.

¡An bai mutilla! Arren oju, eta salapartak; berriketan beti bere chanda..... ¡zurrut-tokiyian dagonian mutilla da ura bost biatzian!

Bañan atietara alderatzeakuan batetan mututurik gelditzen da. Ez dakit nik kaleko aiziak biyotzeko miña ematen diyon edo zer.

İnauteriyak ziran. Ikusten zituben lagunak, mutur zikiñ, arropa zar, arrantzako tresnakin, edo erratza bizkarrian zutela nola zijoazen kale aldera; bañan *Dominištiku* geldi bertan. Ardotegiyan egingo zuben nai zan guztiya: ez ordia kalian.

Alperrik ziran egiten zizkaten alegiñ guztiyak, ez zan ura ardotegitik aterako zubenik; ez bazan echerako edo itsazorako.

Ala igaro ziran igandia eta astelena. Eta irugarren egunian, ariyan

ziyo eta ziyo, limurtu zuten gure *Dominištiku*, eta zomorro jantzi eta lagunakin Bulebar-era juango zala itz eman zuben.

Ikustekuak ziran zanpantzart artzaldian kai ondoko ardoteği batian zebilzkiten iřkanbillak. *Dominištiku* eziñ apaindurik bazekaten lana naikua. Lenbizi gona gorri bat jantzi ziyoten, gero jarri zizkaten eche-koandriak emantako pirpillin parpak guztizko ikusgarriyak, eta buruan zapi bat, nolakua bera: ura bai zala churi ta gorri ta kikiriki.

Muzorroakiñ arpegiya estali ziyotenian, chori izultzalia ziruiyen. Makiñabat algara egiñ zan *Dominištiku-ren* bizkar. Beste iru lagun ere zomorro jantzi ziran, arpegiyak estalirik, eta atera ziran kalera.

Atarian apaiz jaun bat topo egin zuten. Orduban *Dominištiku-k* buruba makur makur egin ta chapela ateratzeko keñu egin zuben. Ez ordia chapelik izan. Gizarajua, aguro aztu zitzyon zomorro zijoala.

Oju ta karraři, chimiřtak egiten jua ziran Bulebar-era. Bazan anchen jendia. *Dominištiku* sartu zan tartian eta an gelditu zan ez atzera eta ez aurrera. Ez zegon an ontziko antzera balantzaka ibiltzerik.

Lagunak nun ote ziran asi zan begiratzen alde batera ta bestera, bañan ħnork esagutu, arpegi estaliyak bazebiltzan ta nola jantziyak ziran ez bazekiyen? Bati *kařo* bestiari *eup* egiten zioten aldameneko guztiyai, baña alperrik. Belarrimotzak izan biar zuten denak.

Geruago ta estubago, geruago ta larriyago, isardi patsetan, ukabilla añaako tantuak zerizkiyola, ondo damutu zitzyon zomorro ateria.

Bañan, ħnola jantziyak ote ziran lagunak? Onek ematen ziyon nai-ko buru-auste. Ontan gogoratu zan *Martin Koipe*, *sonbrallu kopalta-kin* atera zala; eta ara nun *sonbrallu kopalta* bat ikusten duben.

Ura da *Martin Koipe*, esanaz, an dijoa bultza bati, bultza bestiari, chirriřta emen, estroposo an, eta alderatu zanian, kopalta zanpatu, purrukatu, chetu-rik: *Kařo Koipe*, deitu ziyon indar guziz

Orduban zer gertatu zan, ez nezake esan. Ez *Martin Koipe*, bañan prantzez jaun aberatz bat zan *sonbrallu kopalta* duna. Onen ojubak, jendien karrařiak, danak *Dominištiku-ren* kaltez, batek eldu, bestiak jo, bultza onek, lurperatu bestiak, zanpa zanpa egin zuten danen artian. Noizbait ere agertu ziran agintariyak eta eraman zuten.

.
Austerri goizian, erriko-echekeo betik, dana elbarrituba, otzak dardarka, an atera zuten *Dominištiku*..... *dominiřtikuka*.